

Geure jokabideak, agertokian



Maitalea eta beste antzerki lan batzuk

Jatorrizko izenburua: *The Lover, Old Times, Party Time, A Kind of Alaska and Mountain Language*

Egilea: Harold Pinter

Itzultzailea: Iñigo Errasti

Argitaratze urtea: 2006

Argitaletxea: Elkar (Jokin Zaitegi itzulpen saria)

INMA ERREA

Beti da gauza bitxia taula baten gainean antzeztua izateko sortu dena liburu batean leitzea, baina antzerki-lan bat irakurtzeak, irudimena eragiteko ahalegin handiagoa eskatuta ere, antzezlanaren beste ikuspegitik dastatzeko aukera ematen digu.

Bereziki interesgarria da Harold Pinterren obrak irakurtzea, haietan hitzek eta hizkuntzaren erabilerak duten berebiziko muntarengatik.

Harold Pinter (Londres, 1930) erabat ezaguna egin da, 2005eko Literaturako Nobel saria eskuratu eta gero. Baina aurretik ere bazuen ongi irabazia ospea, hala zinema- eta antzerki-lanengatik –non boterearen, harremanen eta hizkuntzaren arteko lotura sakonak agerian paratzen baititu, Ionesco edota Becketten oihartzunak lagun– nola justiziaren alde eta agintekeriaren kontra borrokatuta erakutsi duen konpromiso politikoagatik.

Maitalea eta beste antzerki-lan batzuk izenburuaren aterpean, Iñigo Errastik Pinterren bost lan eskaintzen dizkigu ederki euskaratuta; bost lan, Pinterrek antzerkiaren arloan jorrotutako ibilbidean mugarri eta erakusle doi direnak. Iñigo Errastik Nobel sariaren irabazleen lanak itzultzeko urtero deitzen den Jokin Zaitegi saria irabazi zuen 2005ean, eta horren emaitza dira, hain zuzen, gaur hona ekarritako liburu honetako *Maitalea* (1963), *Lehenengo denborak* (1971), *Alaska moduko bat* (1982), *Festa giroan* (1991) eta *Mendiko hizkuntza* (1988). Lan guztiotan nabarmenak dira Pinterren kezak –banakoen arteko botere-harremanak, harreman horietan sarri agertzen den bortxa, boterea eskuratzeko hizkuntza usteltzeko gizon-emakumeon trebezia eta botere politikoak gizartea mendean izateko baliabide horiek beraiek erabiltzeko duen manera lotsagabea– eta horien gainean egileak egiten duen salaketa gogorra.

Maitalea-n, senar-emazte protagonisten joko sofistikatuan haien irudimenezko maitalea ia erreala, benetakoa, nola bilakatzen duten erakusten digu Pinterrek, eta *Lehenengo denborak*-en, oroimenak pertsonengan uzten dituen aztarnen subjektibotasunak gertaeren objektibotasuna bera nola menderatzen duen aztertzen du. *Alaska moduko bat*-en benetako kasu kliniko batez baliatzen da egilea, denboraren iragateari buruzko pertsonen pertzepzioetan murgiltzeko. Hiru antzezlan horiek espazio pribatuak (etxea, ospitalea...) dituzte eszenatoki, eta harreman pribatuak, lotura. *Festa giroan* eta *Mendiko hizkuntza*, ordea, esparru publikoan jokatzen dira, eta zuzen-zuzenean jotzen dute botere-abusuen kontra, dela gizarte-maila altuko pertsonaiek festa pribatu batean dauden bitartean kanpoan gertatzen ari diren izugarrikeriez jabetzeari egiten dioten ukoa (*Festa giroan*) dela boteredunek beren hizkuntza inposatuta menderatuen eta horien hizkuntzaren kontrako jarrera krudela (*Mendiko hizkuntza*) –turkoek kurduen kontra jokatzeke erakutsitakoa, kasu– salatuta.

Finean, antzezlan hauek ez dira atsegin emateko eginak, begiak irekitzeko baizik, gurengandik ez oso urruti gertatzen diren gauzen aurrean, gainera.